

Bloke honetan, gure ideien nondik norakoa azalduko dizuegu. Lehenik eta behin, nondik etorri zitzaigun ideia edo proiektua azalduko dizuegu eta ondoren Start innovak eskeintzen digun eredu bat jarraituz (Canvas), puzzle antzerako bat landuko dugu, hona hemen puzzlearen pieza ezberdinak:

1. [Balorezko proposamena](#)
2. [Merkatuaren segmentazioa](#)
3. [Funtsezko elkarreak](#)
4. [Irabazi iturriak](#)
5. [Kanalak](#)
6. [Bezeroekiko harremanak](#)
7. [Funtsezko baliabideak](#)
8. [Funtsezko jarduerak](#)
9. [Kostuen egitura](#)



Gure enpresa sortzeko ideia, denon aisialdiko ekintzekin bat dator, izan ere, denek gustura erabiliko dugun zerbait sortu nahi genuen gero gogo handiagoarekin lan egiteko.

Horretarako, bakoitzari zer gustatzen zaion, zer egiten duen aisialdian, zertan den ona... galderak egin genituen, informazio hori lortu eta denekin bat datorren gaian zentratu ginen. Informazioari begiratu bat eman orduko jabetu ginen kirola zela denei bultzatzen zigun gaia, beraz gaian barruan zer gabezi dauden pentsatzen jarri ginen.

Kirola egiteko erosten ditugun produktuetan pentsatzen jarri ginen eta denek zapatilak erosten ditugula jabetu ginen, ondoren galdera famatua planteatu genuen "zer gabezi daukate?" galdetu orduko jabetu ginen prezioa zela arazo nagusia, izan ere, gaur egun zapatilak erosteko gutxienez 80€ behar dituzu eta urte bat amaitzerako berriak erosi behar. Arazoa kontutan izanik, arazoari irtenbide bat eman nahi genion eta taldekide bati zera bururatu zitzaion, erabiltzen ez ditugun edo izorratzen zaigun zapatilak artu eta dendan konponketa bat egin ondoren bigarren eskuko zapatila bezala salduko genituzke, diru soberarik gabe dabilen jendeak kirola egiteko zapatilak izateko prezio xume batean. Horrez gain, beste arazo bat ere aurkitu genuen kirol munduan, dendetako aukerak, izan ere geroz eta aukera itxiagoa izaten da dendetan, hori obetu nahian gure enpresak dendak jarriko ditu eta dendetan kirol denetarako aukera zabal bat eskainiko genuke. Aukera zabala izateaz gain prezio xume baten eskainiko ditugu, izan ere gure enpresaren lema, bezeroa gustura egotea da.

Gure enpresak lurra jotzeko aukerak murrizteko, beste enpresa batzuekin bat egingo dugu horrela enpresaren egonkortasuna handituz.